

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

URKABUSTAIZKO UDALA

06/2024 aurrekontu-aldaketaren espedientearen hasierako onespena, 3/2024 kreditu gehigarria

Udalbatzak, 2024ko irailaren 25ean egindako ohiko bilkuran, aho batez onartu zuen 06/2024 aurrekontu-aldaketaren espedientea, 3/2024 kreditu gehigarria zena.

Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 34. artikuluan xedatutakoaren arabera, espediente hori jendaurrean egongo da hamabost eguneko epean, ebazpen hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Epe horretan, interesdunek aztertu ahal izango dute, egoki iritzitako erreklamazioak aurkeztuz Osoko Bilkuran.

Kreditu gehigarriaren espedientea behin betiko onartutzat joko da epe horretan erreklamazioz aurkeztu ez bada.

Jende guztiak horren berri izan dezan eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da hau.

Izarran, 2024ko irailaren 27an

Alkatea

XABIER ÁLVAREZ DE ARCAYA FERNÁNDEZ DE LANDA